

MUSIKASARTE MUSIKA ELKARTEA



Oaintxe In Deu txaranga

La asociación musical MUSIKASARTE se creó en el año 2015 como un proyecto musical popular. Los fines de esta Asociación son:

Ambientar musicalmente los actos festivos, culturales y deportivos que se celebran en Lasarte-Oria. Transmitir y promover el patrimonio musical vasco. Impulsar la práctica a todos los vecinos que quieran participar. Ofrecer a los alumnos de la Musika Eskola de Lasarte-Oria llevar a la práctica su aprendizaje musical. Dar cabida a iniciativas de grupos musicales.

Para la consecución de estos objetivos se contactó con diferentes lasartearras que tenían alguna experiencia musical y se formó una txaranga a la que denominamos "Oaintxe In Deu". Hay que tener en cuenta que desde la desaparición de la txaranga de Chicarrón que amenizó el pueblo en las décadas 60 y 70, Lasarte-Oria no cuenta con ninguna txaranga.

Esta txaranga salió por primera vez en las fiestas de San Pedro del año 2015. Nos juntamos una docena de músicos, algunos novatos y otros ya curtidos. La experiencia fue altamente positiva y nos animó a seguir participando en eventos posteriores.

De esta forma la Txaranga "Oaintxe In Deu" participa todos los años en los Inauteriak, en las fiestas de San Pedro, en la Euskal Jaiak, en la Klean Fest, en las fiestas del barrio de Zabaleta, en las fiestas de Sasoeta organizadas por la Casa de Extremadura, en el Euskararen Maratoia, en eventos de Asociaciones benéficas, deportivas y altruistas del pueblo.

Desde aquí mismo invitamos a cualquier lasartearra que toque algún instrumento musical a sumarse al grupo, sabiendo que no es necesario ser profesional, se admite a cualquiera que le guste la música y que quiera tocar para pasarlo bien y en especial a todos los alumnos de Escuela de Música de Lasarte-Oria.



Patzun-patzun-patzun....

xarangak lau teilaturen ganean, ilargiaren erdian, eta herriko plazan biluztuko ditu notak, pentagramak, partiturak, eta, zu, bapatean, zergatik ongi jakin gabe, hankak mugitzen hasiko zara musikaren erritmora tabernan eskatu berri duzun zerbeza eskuan.

Behin batian Loiolan, erromeria zela jakin genuen, baita bertan neskaxa bat arin zebilela dantzan, Behin batian, behin batian...zenbatetan ez ote dira gertakari garrantzitsuen kontakizunak esamolde berarekin hasi. Adibidez: behin batian Lasarten, Oraitxe in deu txaranga sortu zen.

Festarik festa hor nabil ni egunero, festarik festa lan egin behar gauero. Lana? Gustuko lekuan, aldaparik ez dio esaerak. Festarik festa ibili zaleak gara. Imaginatu txarangarik ez duen festaren bat. Egin proba. Itxi begiak eta irudikatu herriko kale nagusia jendez mukuru. Tabernak lepo, kuadrila bakoitza bere blusa soinean, musikarik gabeko elkarrizketen zurrunbiloa dabil airean. Imaginatzen duzu, ezta? Edozein herritako festen irudia izan daiteke. Ba, imaginatu orain, kalearen izkin batetik kale nagusiruntz datorren txarangaren zalaparta: patzun-patzun-patzun... lagunak heldu dio gerritik lagunari, besotik aitonari, aitonak amonari, aita leporatu du umea, eta adinik gabeko mugimendu kolektiboak batasun irudia eman dio kale nagusiar. Olatu perfektua sortu da. Festa heldu da.

Lepoan hartu ta segi aurrera! Esan genion Helikoidea lepo ganean ikusi genionean. Aupa Juan Luis! Hi haiz hi artista! Sukaldari on guztiak bezala, su mantsoan sukaldatzekoa da gure Juan Luis. Ez zen su berotan hasi txarangarekin, bai, ordea, su ez-tian. Lehenik, tipula erregosten jarri, ondoren, gainontzeko barazkiak gehitu, eta baso bat ardo beltz gainetik bota ondoren ipini zuen Juan Luisek biribilkia eltzean. Eltzean zeramatzan orduak, egunak, hilabeteak, baita urteak ere, ia ahaztu ginen biribilkiaz eta sukaldariak, baina, hara non, egun batean, inork uste ez zuenean, prest dago! Oihukatu zuen sukaldariak. Eseri ginen mahaiean, bazkaltzera. Biribilkia borobil atera zitzaion. Jan genuen, edan genuen, hitz egin genuen, eta gozatu genuen. Biribilkia magikoa zen. Jan ahala hazi egiten zen. Ez zen agortzen. Gure gosea asetzeko egina zegoen. Egunak pasa ziren, hilabeteak, urteak eta ohitu ginen biribilkia jatera. Uste genuen ez zela munduan biribilki goxoagorik. Biribilkia jaten jarraitu nahi genuen. Inor ez zen haren zaporeaz aspertzen, nekatzen. Baina, hara! Nonbait, bizitza ez da biribilkia bezain biribila, eta sukaldariak mezu bat bidali zigun biribilkia amaitu zela esanaz. Gose gara geroztik.





Non hago? Zein larretan, Urepeleko Artzaia? Guk ere izan genuen gure Xalbador partikularra. Tolosarra bera. Harek jostun lana zuen gure artean. Banan bana jasotzen gintuen trapu zaharren antzera, eta trapu bat bestearekin josten zuen bat bera ere ahaztu gabe, alboratu gabe. Josi eta josi, josi eta josi, eta irteten ginen dotore kalera, gure kamiseta berdez, jertse zuriz eta euritako beltzez. Bat ginen kaletarren belarrietara eta baita begietara ere. Gure artzaia ez zen, ordea, eskuz josteko abilezia zuen jostuna soilik. Gure artzaiak hitzez, keinuz, detailez, entzunez, animoz, gure arteko harremanak josi zituen. Josi zizkigun irribarreak eta pozak, desjosi, aldi berean, beldurrak eta kezak. Josiak eta desjosiak gure artean diraute. Kalera irteten garenero, taberna izkin batek, bete gabeko siltasun une horrek, iñauterietako abestiek, zugana garamate. Akaso "pieza" xamarra zinela edo, zure izena daraman txarangarako pieza bat konposatzea otu zitzaion gure saxofoi irakasle izan zenari. Oraintxe in deu deitu genion zure omenez egindako piezari. Orain, musika zara, notak, sostenidoak, bemolak, eta piano-piano belarrietatik sartzen zara gure barruetara bihotza limurtzeraino, eta zure erritmora josten gara, berriro, edo zure erritmora josten gaituzu, berriro, trapu zaharrak elkar lotuz traje eder bat osatu arte. Non hago? Zein larretan? Xalbador zenari eskainitako abesti ederra da, baina ederragoa ez al da jakitea gure artzaia gure barruko larretan jolasti eta jostun bizirik dela?

Sarri-sarri emozionatu gara. Sarri-sarri kantatu diogu gure herriari, Lasarteri. Sarri-sarri bildu gara entsaiotan horren berdinak ez garenak, eta txarangari esker ez balitz ezagutuko ez ginenak. Sarri sarri, barre egin diogu gure buruari, esanaz: ze onak garen. Sarri-sarri eskertu beharrean izan gara herritarrek emandako harreragatik eta tabernariak ateratako edari eta pintxoengatik. Sarri-sarri esan dugu herriko txaranga garela, eta gure atak parez pare irekiak daudela edonork erokeria honetan parte hartu nahi izango balu.

